



IRIZPEN ZK.: D19-013

JENDERIK GABEKO ETXEBIZITZEI EDO ETXEBIZITZA HUTSEI BURUZKO UDAL AZTERLAN BATEAN EGIN NAHI DEN DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: [...] Udalak irizpen bat eskatu dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, goiburuan adierazitako gaiari buruz. Eskaera idazkiak honakoa adierazten du:

“[...]-(e)ko osoko bilkurak, 2019ko urtarrilaren 31ko saioan onartu zuen [...]-(e)n “Jenderik gabeko etxebizitzaren gaineko azterlana” egiteko aurrekontuko partida handitzea aurreikusten duen udal aurrekontua.

“Azterlan” horren bidez lortu nahi da jakitea zein den [...]-(e)n jenderik gabeko etxebizitzaren benetako egoera, etxebizitza horiek mugatzeko neurri positiboak hartu ahal izateko, eta etxebizitzak udalerriko biztanleen eskura jarri ahal izateko.

Azterlanak, etxebizitza premiak zein dien jakiteaz gain, beste helburu nagusi batzuk ere baditu: batetik, [...]-(e)n jenderik gabeko etxebizitzaren benetako egoerari buruzko datu zehatzak edukitzea; eta, bestetik, jakitea zergatik dauden etxebizitza horiek jenderik gabe. Horren guzti horren xedea da betetzea Konstituzioaren 47. artikuluan jasotako agindua, EAEn Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean ere araututa dagoena.

Informazio hori guzti hori beharrezkoa da jenderik gabeko etxebizitzak okupatzeko diseinatutako udal politikak hartzeko, edozein dela ere aukeratutako formula: alokairua bultzatzea, etxebizitza ekipamendua sortzea, alokairu politikak, etxebizitza erosteko diru-laguntzak eta abar.

Azterlana egiteko, honako hauek erabiltzea planteatzen da (beste batzuen artean):

- *Etxebizitzaren errolda erabiltzea*
- *Ur Partzuergoari kontsumoen zerrenda eskatzea”.*

Udaleko datuak babesteko ordezkariak gaiaren gaineko txostena egin du, eta bertan honakoa dio:

“Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, ez da ikusten Jenderik Gabeko Etxebizitzaren Gaineko Azterlana egiteko kontratuan sartu nahi diren datu pertsonalen tratamendua legitimatzen duen lege-oinarririk.

Planteatutako kontratuak tratamendu-operazioekin lotutako arriskuak dakartzanez, eta kontuan hartuta tratamenduaren helmenak, testuinguruak eta helburuak duten garrantzia, txosten hau izenpetzen duen teknikariak honako gomendioak proposatu nahi dizkio tratamenduaren arduradunari:

- *Datuak Babesteko Euskal Bulegoari kontsulta egitea, egin nahi den kontratuaren baitan sartu beharreko datu pertsonalen tratamenduen*



gainean. Txosten hau ere jasotzea aurkeztu beharreko gainontzeko dokumentazioarekin batera.

- *Kontratazio prozedura etetea eskatutako irizpena egin bitartean, eta kontratazioa burutu ala ez, irizpenaren emaitzaren baitan erabakitzea*

Esandako guztia kontuan hartuta, [...]-(e)ko Udalak kontsulta hau egiten du, jakiteko ez zilegi den jaberik gabeko etxebizitzaren gaineko azterketa bat egitea, ea zuzenbidearen eta gainontzeko araudi ezargarriaren arabera den, eta, zehatzago ea ondo ezkontzen den datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin; eta galdetzeko zein zuhurtzia izan behar diren kasu honetan”.

Irizpen-eskabideari atxikita doazkizue, batetik, [...]-(e)ko udaleko datuak babesteko ordezkariaren 2019ko apirilaren 11ko irizpena, Udaleko Hirigintza eta Etxebizitza Zinegotzigoak eskatuta egin zuena; eta bestetik, preskripzio teknikoaren agiriaren zirriborroa.

Preskripzio teknikoaren agiriaren zirriborroan azaltzen da zein den kontratuaren balizko esleipen hartzaileak edo lizitatzailak egin beharreko lana, jenderik gabeko etxebizitzaren gaineko azterlana egiteko:

- Herritarren etxebizitza premien azterketa, herritarrek baldintza sozioekonomikoen deskribapenarekin eta bizikidetzaren unitateekin.
- Jenderik gabeko etxebizitzaren egoeraren gaineko diagnostikoa. Honako hauek jaso beharko ditu:
 - Jenderik gabeko etxebizitzaren kuantifikazioa.
 - Etxebizitzaren ezaugarriak eta etxebizitzak geografikoki kokatuta dauden eraikinaren ezaugarriak, eta horien artean **jabetza erregimena ere bai, hau da, ea jenderik gabeko etxebizitzak jabe bakarra duen ala titulartasun partekatua.**
 - **Elkarrizketak egitea jenderik gabeko etxebizitzaren jabeei**, jakiteko ea zergatik ez dituzten etxebizitzak merkaturatu jartzen eta jakiteko ea jabeen ustez zein neurri izan daitekeen aproposak etxebizitzak mobilizatzeko. Elkarrizketatutako etxebizitzaren ehuneko ezingo da izan jabe guztien % 10 baino txikiagoa.
- Jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatzeko neurri berritzaileak identifikatzea eta proposatzea.

Ez dagoenez argi deskribatutako jarduerak ondo ezkontzen diren datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpena eskatzen dugu.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea”.



Beraz, araudia kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsultan esaten denez, Udalak *“Jenderik gabeko etxebizitzaren azterketa”* egin nahi du udalerrian, jakiteko zein den jenderik gabeko etxebizitzaren **benetako egoera**, etxebizitza horiek mobilizatzeko neurri positiboak hartu ahal izateko eta etxebizitzak udalerriko biztanleen eskura jarri ahal izateko; eta jakiteko **zergatik** dauzkaten etxebizitzak egoera horretan.

Udalak, uste du azterlanaren emaitza beharrezkoa dela jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatzeko diseinatutako udal politikak hartzeko.

Udalak Konstituzioaren 47. artikulua eta Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen babesa baliatu nahi du azterlana egiteko.

Bestalde, Udalaren asmoa da azterlana egiteko erabiltzea etxebizitzaren errolda (biztanleen udal errolda) eta kontsumoen zerrendak eskatzea Ur Partzuergoari.

Horrez gain, Udalak aurreikusten du jenderik gabeko etxebizitzaren egoeraren gaineko diagnostikoa egitea, eta horretarako *“elkarrizketak egitea jenderik gabeko etxebizitzaren jabeen, jakiteko ea zergatik ez dituzten etxebizitzak merkatuan jartzen eta ea jabeen ustez zein neurri izan daitekeen aproposak etxebizitzak mobilizatzeko”*.

Kontsultari behar bezala erantzuteko, arreta berezia jarriko dugu tratatu nahi diren datu pertsonaletan:

- Biztanleen udal erroldako datuak ustiatzea, erroldatuta herritar bat ere ez duten etxebizitzaren lokalizazioari buruzko informazioa eskuratzeko. Kontsultak *“etxebizitzaren errolda”* aipatzen du, baina uste dugu Toki Araubidearen Oinarriak (TAOL) arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 15. artikulua eta hurrengoek aipatzen duten biztanleen udal errolda esan nahi duela.
- Ur Partzuergoak erregistratuta dituen etxebizitzetako ur kontsumoak.
- Elkarrizketatu nahi diren jenderik gabeko etxebizitzaren titularren datu pertsonalak. Beraz, titulartasunari buruzko informazioa da (jakiteko ea etxebizitzak jabe bakarra ala gehiago dituen), eta jabeekin harremanetan jartzeko lokalizazio datuak.

II

Kontsultak aipatzen duen datu tratamendua pertsona fisikoei buruzkoa den bitartean, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren menpe egongo da.

Erregelamendu Orokorrek *“zilegitasun printzipioa”* [5.1 a) artikulua] ezartzen du datu pertsonalen tratamenduetarako, eta esan nahi du datu pertsonalen tratamendu legekoa



izan beharko dela.

Erregelamendu orokorraren 6. artikulua jasotzen ditu zehatz zein baldintza edo oinarri juridikok egiten duten legezkoa izatea datu pertsonalen tratamendua; eta bat da interesdunak ea adostasuna adierazi duen bere datu pertsonalak tratatu ditzaten helburu zehatz jakin baterako edo batzuetarako [6.1 a) artikulua].

Interesdunak adostasunik adierazi ezean, aztertu beharko da ea kontsultan aipatzen diren eta egin nahi diren datu tratamenduak legezkoak diren Erregelamendu Orokorraren gainontzeko oinarri juridikoen diotena kontuan hartuta.

Gainera, kontsulta egilea jenderik gabeko etxebizitzaren gaineko azterlan bat egin nahi duen administrazio publikoa da, eta azterlanak ematen duen informazioa erabili nahi du *“etxebizitza horiek mobilizatzeko neurri positiboak hartu ahal izateko eta etxebizitzak udalerriko biztanleen eskura jarri ahal izateko”*; ondorioz, Udalak aztertu beharko du ea egin nahi duen datu tratamendua ondo ezkontzen den Erregelamendu Orokorraren 6.1 e) artikulua xedatutakoarekin:

“Beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko”.

Aldi berean, Erregelamendu Orokorraren 6.3 artikulua agintzen du oinarri juridikoa nahitaez egon beharko dela tratamenduaren arduradunari aplikatzen zaion Batasuneko edo estatu kideko zuzenbidean. Hona zer xedatze duen:

“Tratamenduaren helburuak oinarri juridiko horretan egon beharko du jaso, edo, 1. zenbakiko e) letran aipatutako tratamenduari dagokionez, beharrezkoa izango da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko. Oinarri juridiko horrek xedapen espezifikoak jaso ahal izango ditu erregelamendu honetako arauen aplikazioa egokitze, besteak beste: arduradunaren aldetik tratamenduaren zilegitasuna gobernatzeko baldintza orokorrak; tratamenduaren helburu diren datu-motak; ukitutako interesdunak; datu pertsonalak jakinarazi ahal zaizkien erakundeak eta jakinarazpen horren helburuak; helburuaren mugatzea; datuak kontserbatzeko epeak, eta tratamenduaren eragiketak eta prozedurak, tratamendu zilegia eta bidezkoa bermatzeko neurriak barne, esaterako IX. kapituluaren arabera beste tratamendu-egoera espezifiko batzuei buruzkoak. Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak interes publikoko helburu bat beteko du eta proportzionala izango da bilatzen den helburu legitimoarekiko”.

Era berean, 3/2018 Lege Organikoaren 8.2 artikulua honakoa xedatzen du:

“Datu pertsonalen tratamendua interes publikoan oinarritzeko edo arduradunari (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 6.1.e) artikulua xedatutakoaren arabera esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizunean oinarritzeko, lege mailako arau batek esleitutako eskumenaren ondorio izan beharko du tratamendua”.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 25.2 artikulua xedatzen du udalerriak Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako moduan, bete beharko dituela beti bere eskumenak, babes publikoko etxebizitzaren sustapena eta kudeaketa ere bai, finantza-iraunkortasunerako irizpideekin gainera.



Euskal Autonomia Erkidegoan Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.7 artikulua xedatzen du lege honetan eta gainontzeko lege ezargarrian finkatutakoaren arabera bete beharko dituztela bere eskumenak, etxebizitzaren planifikazioa, programazioa eta kudeaketa ere bai.

Era berean, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 10. artikulua etxebizitza gaietarako eskumenak esleitzen dizkie tokiko lurralde erakundeei, honako baldintzen arabera:

*“1. Eusko Jaurlaritzak, **lurralde historikoek eta lurralde izaerako toki-erakundeek**, dagozkien organoen bitartez, izango dituzte etxebizitza-gaietako eskumenak eta ardura, lege honetan eta aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera.*

*2. **Udalei** dagozkie beren titulartasuneko zuzkidura-bizitokiaren antolamendu, sustapen, kudeaketa, esleipen eta kontroleko eskumenak, bai eta udal-araubide tasatuko etxebizitza, lokal eta eranskinenak ere, eraikuntza berrikoak izan edo birgaitzeko eta hiri-berroneratzeko berariazko planen ondoriozkoak izan.*

3. Lege honetan aurreikusitakoaren arabera, halaber udalei dagozkie ikuskatzeko, behin-behineko neurriak hartzeko eta eraikinak egoki erabiliko direla bermatzeko esku-hartze publikoko ahalmen eta ahalak, baita etxebizitzaren merkatuan eragitekoak ere, eta orobat beraiei dagokie etxebizitza-gaietan zehatzeko ahala erabiltzea.

4. Lurralde-izaerako toki-erakundeek, duten neurriagatik edo baliabide faltagatik, arazoak baldin badituzte etxebizitza-gaietako beren eskumenak bakarka nahiz elkartuta gauzatzeko, etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako organoari edo dagokion foru-aldundiari agindu ahal izango diote edo haren esku utzi eskumenen gauzatzea, administrazio-prozedurari buruzko legerian aurreikusitakoaren arabera”.

Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearen 4. artikulua etxebizitzaren funtzio sozialaz ari da, eta honakoa xedatzen du 3. eta 4. zenbakietan:

*“3.- Etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak eta **toki-erakundeek** sustapen- eta ituntze-ekintzak bultzatuko dituzte, bai eta beharrezkoak diren ohartarazpeneko eta pertsuasioko esku-hartzeak ere, bakoitzak bere eskumenen esparruan, etxebizitza, bizitoki eta eraikinen funtzio soziala bete dadin.*

*4. Halaber, etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saila eta **toki-erakundeak** lankidetzan jardungo dira funtzio soziala betetzen ez duten esparru eta egoera bakanak identifikatu, zedarritu eta deklaratzeko, bai eta aipatutako funtzio soziala betetzen dela bermatzeko legez egoki diren neurriak hartzeko ere”.*

Segidan aztertuko dugu ea kontsultan planteatzen den moduko datu tratamenduak ondo ezkontzen diren datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea arautzen duen araudiarekin.

III

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16.3 artikulua honakoa dio: *“Udal errolda udalerrri bateko biztanleak jasotzen dituen administrazio erregistro bat da. Erroldako zehaztasunak udalerrian bizilekua izan eta bertan ohiko egoitza izatearen frogara dira”.*



Udal erroldako datuen tratamendua TAOLen 16.3 artikuluan dago araututa:

"Erroldako datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko interesdunaren adostasunik gabe, datu horiek nahitaezkoak izan behar dira administrazio horiek euren eskumenez baliatu ahal izateko, eta bakar-bakarrik lagako zaizkie helbidearen edo egoitzaren gaineko datuak ezinbestekoak badira. Datu horiek sekretu estatistikopean dauden estatistika ofizialak egiteko ere erabili ahal izango dira, beti ere Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legean eta arlo honetan eskumena duten autonomia erkidegoetako estatistikari buruzko legeetan xedatutakoa kontuan hartuta".

Beraz, Udalak udal erroldako datuak tratatu ahal izango ditu, baina baldin eta datu horiek beharrezkoa badira administrazio horiek etxebizitza gaietarako eskumenez balia daitezen, eta baldin eta egoitzaren edo helbidearen datua oso garrantzitsua bada.

IV

Udaletxeak ez du azaldu kontsultan norengandik eta nola jasoko dituen udalerriko etxebizitza bat jenderik gabe edo hutsik dagoela esaten duenean, etxebizitza horien titularren datu pertsonalak.

Etxebizitzen titularren identitateari buruzko datuak zuzenean eskuratzeko, administrazio erregistroetara jo behar izaten da, adibidez, higiezinaren katastroa; eta zeharka ere eskura daitezke: Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren bitartez, higiezinaren titularrak direlako zergaren subjektu pasiboak. Beraz, honakoak bereizi ditzakegu:

IV.1). – Higiezinaren katastroatik datozen datuak.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Higiezinaren Foru Katastroari buruzko maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauak arautzen du higiezinaren katastroarako sarbidea, eta 48. artikuluan xedatzen du katastroko sarbidearen ondorioetarako, *"datu babestuak Higiezinaren Foru Katastroan katastroko titular gisa inskribatuta daudenen izena, abizenak, sozietate-izena, identifikazio-kodea eta helbidea"*.

3/2016 Foru Arauaren 49. artikulua finkatzen ditu sarbiderako baldintza orokorrak, eta 1. zenbakian zera dio: *"Pertsona guztiek izango dute beren titulartasuneko higiezinei buruz Higiezinaren Foru Katastroan dagoen informaziorako sarbidea, bai eta babestu gabeko datuen informaziorakoa ere"*.

Eta 49. artikuluko 2. zenbakian dio honako hauek katastroko informazio babesturako sarbidea izango dutela, interesdunaren adostasunik behar izan gabe:

"a) Bizkaiko Foru Aldundiko, beste foru aldundietako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organoek zein beste lurralde-administrazio publikoetakoek, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak eta Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileak eta zerbitzu erkideek, baina beti eskumen-, egokitasun- eta proportzionaltasun-printzipioek ezartzen dituzten mugekin".

Udalak lurraldeko administrazio publikoak direnez, etxebizitzen titularren identitatearen datuetara sarbidez dute, baina 3/2016 Foru Arauaren 49.2.a artikuluan ezarritako mugekin, hau da, informazio hori tratatzea ezinbestekoa izan beharko dela udalak etxebizitza gaietan dituen eskumenak baliatzeko.



IV.2). – Zerga alorrean ondorioak dituzten datuak.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 94.1 artikulua xedatzen duenez, zerga-ordainketan eragina duten datuak, adibidez, ondasun higiezinaren gaineko zergatik eratorritakoak, “*isilpekoak dira eta hark kudeatzen dituen zergak edo baliabideak aplikatzeko eta bidezko zehapenak ezartzeko soilik erabili ahal izango dira, eta ezin zaizkie laga gainontzekoei, ez jakinarazi*”. Artikulu berak (94.1 artikulua) hainbat salbuespen jasotzen ditu, eta halako datuak lagatzea ahalbideratzen du, adibidez, l) letran dioen bezalako kasuetan, hau da lagatzearen xedea honakoa bada: “*Herri administrazioei euren eginkizunetan laguntzea, zergapekoek euren datuak horretarako laga daitezen baimena eman ondoren*”.

Beraz, 2/2005 Foru Arauak zerga arloko datuak lagatzeko baimena ematen die administrazio publikoei, euren eginkizunetan laguntzeko, interesdunak (zergapekoak) aldeztatik adostasun adierazi badu.

V

Udalak, jaberik gabeko etxebizitzaren gaineko azterlanaren egiteko, udalerriko etxebizitzaren ur kontsumoaren datuak nahi ditu; eta informazio horren arduraduna [...] Ur Patzuergoa da.

Udalak kontsultan azaltzen du jenderik gabeko etxebizitzaren egoeraren gainean egin nahi duen azterlanaren helburua dela Konstituzioaren 47. artikuluko manua betetzea (“*botere publikoek beharrezkoak diren inguruabarrak bultzatu eta bidezko arauak ezarriko dituzte, eragingarria izan dadin etxebizitza duin eta egoki bat izateko eskubidea*”). Eskubidea Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen dago araututa.

Etxebizitzari buruzko legearen 64.1 artikulua berariaz aurreikusten du administrazio eskumendunek eska ditzaketela eta kontuan eduki biztanleen udal erroldako datuak eta beste erregistro publiko batzuetakoak ere bai, bai eta uraren, gasaren eta arginfarraren kontsumoak ere, ez ohiko kontsumoak direla-eta, gehiegizkoak ala gutxiegi izateagatik.

Gainera, artikulua horren 2. zenbakiak honakoa xedatzen du: “*Artikulu honen 1. paragrafoan adierazitako zerbitzuen konpainia hornitzaileek eta entitate kudeatzaileek derrigor eman beharko dituzte etxebizitzaren erabilera desegokia frogatzeko eskatzen zaizkien datuak, betiere datuen babesari buruzko araudia erabat errespetatuz. Datuak lortzeko orduan eta beste edozein erregistro publikotatik lortutako informazioa tratatzeko orduan ere araudi hori bera bete beharko da*”.

Hala ere, gogorarazi nahi dugu Etxebizitzari buruzko legearen 64. artikulua arautzen dituela etxebizitzaren erabilera desegokiak egiaztatzeko bitartekoak, eta, beraz, legitimatzen du datu horiek erabiltzea helburu jakin horretarako. Hala xedatzen du artikulua 1. zenbakiak.

Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearen 56. artikulua dio etxebizitza jenderik gabe dagoela esango dela, hain zuzen, bi urtez baino luzeago jarraian jenderik gabe egon bada, eta, betiere, etxebizitza ez erabiltzeko arrazoirik izan ez bada, lege honetan edo lege hau garatzeko araudian ezarritako baldintzen arabera.

Horrez gain, 56. artikulua dio etxebizitza bat jenderik gabeko etxebizitzatzat deklaratzeko ebazpenak administrazio prozedura bat izan behar duela oinarrian, eta etxebizitzaren titularrei entzun beharko zaiela prozedura horren barruan.



Etxebizitza bat jenderik gabeko etxebizitzatzat deklaratzeko ebazpenak zenbait ondorio juridiko ditu, eta azpimarragarrienetako bat da jenderik gabeko etxebizitzaren erregistroan inskribatu beharko dela. Erregistroak izaera autonomikoa du eta etxebizitza-gaietan eskumena duen sailaren barruan dago (58.2 artikulua). Etxebizitzaren kontrol eta jarraipenerako tresna aproposa da, eta 3/2015 Legeak aitortzen dituen administrazio-ahalen zerbitzura dago (58.1 artikulua).

Gaur egun oraindik eratu gabe dago erregistroa, eta titulartasun publikoko fitxategia ere sortu gabe dago.

Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legeak dio erregelamendu bidez zehaztuko direla idazpen-motak, inskriba daitezkeen ebazpenak eta egintzak, eta idazpenak ezeztatzeko edo erregistro-orriak baliogabetzeko epeak eta zioak (58.5. artikulua).

Hori guzti hori kontuan hartuta, esan behar da Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 64. artikulua legitimatzen duela Udala, ur kontsumoari buruzko datuak tratatzeko, etxebizitza bat modu desegokian erabiltzen dela egiaztatzeko helburuarekin. Ur kontsumoaren gaineko datuak beste asmo batekin erabili ahal izateko, beste lege oinarri bat beharko da, eta ez hau.

VI

Azkenik, kontuan hartuta Udalak zerbitzuen kontratu bidez egin nahi duela jenderik gabeko etxebizitzaren egoeraren gaineko azterketa, gogora ekarri behar dugu kontratuak jaso beharko dituela Erregelamendu Orokorraren 28.3. artikulua tratamenduaren arduradunarentzako agintzen dituen baldintza guztiak eta 3/2018 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak guztiak betez, batez ere 33. artikulua eta lehenengo xedapen gehigarriak xedatutakoa.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 5a